

EBAZPENA / RESOLUCIÓN

Espediente zk./ Expediente nº: 848/2026

Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen

Prozedura/ Procedimiento: Getxoko euskal dantza eta abesbatzen elkarreentzako jantzi artistikoak erosteko dirulaguntza/ Subvención para la adquisición de vestuario artístico para asociaciones corales y de danzas vascas de Getxo

Espedientearen gaia/ Asunto del Expediente: Getxoko abesbatza- eta euskal dantza- elkarreentzako jantzi artistikoak erosteko dirulaguntza deialdia/Subvención para la adquisición de vestuario artístico para asociaciones corales y de danzas vascas de Getxo

Lehendakaritzaren ebazpena, Getxo Kultura

Resolución de Presidencia Getxo Kultura

EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

AURREKARIAK

Deialdi honen bidez eman beharreko dirulaguntzak egoitza soziala edo establezimendu iraunkorra Getxon duten elkartei zuzenduta daude, oinarrietako 2. puntuan zehazten den bezala. Beraz, gehienak erakunde txikiak dira, langile propioak ez dutenak eta gehienbat boluntarioen lanari esker funtzionatzen dutenak. Proposamenak dirulaguntza hauen helburua justifikatzen du: koro kantuan eta euskal dantzetan aritzen diren Getxoko irabazi-asmorik gabeko kultur elkartei dirulaguntzak ematea, beren jarduerari lotutako jantzi artistikoak eros ditzaten, udalerriko ondare immateriala kontserbatzen, sustatzen eta zabaltzen lagunduz.

ZUZENBIDE OINARRIAK

I. - Dirulaguntzak Ematea arautzen duen Udaleko Arautegi Orokorra, 2021eko abenduaren 23ko Osoko Bilkurako Akordioz onetsia eta 2024ko abenduaren 28ko Osoko

ANTECEDENTES DE HECHO

Las subvenciones a otorgar mediante la presente convocatoria van dirigidas a asociaciones con domicilio social o establecimiento permanente en Getxo, como se especifica en el punto 2 de las bases, de manera que se trata en su mayoría de entidades pequeñas que carecen de personal propio y que funcionan mayoritariamente gracias a la labor de voluntarios. La propuesta justifica el objetivo de estas ayudas: la concesión de subvenciones a asociaciones culturales sin ánimo de lucro del municipio de Getxo que se dediquen al canto coral y a las danzas vascas, para la adquisición de vestuario artístico vinculado a su actividad, contribuyendo a la conservación, promoción y difusión del patrimonio inmaterial del municipio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autónomos aprobada por el Pleno de fecha 23 de diciembre de 2021 y modificada por el Pleno



Bilkuran aldatua (2025eko otsailaren 7ko BAOn argitaratua).

del 28 de diciembre de 2024 (publicada en el BOB el 7 de febrero de 2025).

II.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorra.

II.- Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

2026(e)ko apirilaren 27(a)(e)ko PR/2026/717 ebazpen proposamena ikusita, 2026(e)ko apirilaren 27 (a)(e)an aldeko fiskalizazioa jaso zuena./ Vista la propuesta de resolución PR/2026/717 de 27 de abril de 2026 fiscalizada favorablemente con fecha de 27 de abril de 2026.

EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

1.- Getxoko abesbatza- eta euskal dantza-elkarteek jantzi artistikoak erosteko 2026an dirulaguntza emateko **deialdia onestea**.

1º.- **Aprobar la convocatoria** de subvención para la adquisición de vestuario artístico para asociaciones corales y de danzas vascas de Getxo 2026.

2.- Deialdi honen xede den dirulaguntza finantzatzera bideratutako **gehieneko gastua onestea**, 35.000 eurokoa, 2026ko aurrekontuen kargura.

2º.- **Aprobar el gasto máximo** destinado a la financiación de la subvención objeto de la presente convocatoria, ascendente a 35.000 euros, con cargo a los presupuestos de 2026.

3.- Deialdia Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalera **bidaltzea**, eta horren bitartez BAOn laburpen bat **argitaratzea**.

3º.- **Enviar** la convocatoria a la Base de Datos Nacional de Subvenciones y **publicar** un extracto en el BOB, a través del mismo.

Getxon, sinadura elektronikoaren datan

En Getxo, a fecha de la firma electrónica

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE



GETXOKO ABESBATZA- ETA EUSKAL DANTZA- ELKARTEEK JANTZI ARTISTIKOAK EROSTEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

CONVOCATORIA DE SUBVENCIÓN PARA LA ADQUISICIÓN DE VESTUARIO ARTÍSTICO PARA ASOCIACIONES CORALES Y DE DANZAS VASCAS DE GETXO

1.- HELBURU ETA XEDEA

Deialdi honen helburu orokorra da koru-kantuan eta euskal dantzetan aritzen diren Getxoko irabazi-asmorik gabeko kultura-elkarteei dirulaguntzak ematea beren jarduerari lotutako jantzi artistikoak eros ditzaten, udalerriko ondare immateriala kontserbatzen, sustatzen eta zabaltzen lagunduz.

Horretarako, dirulaguntza jasoko dute elkarteek kantu koral eta euskal dantzen emanaldietan erabiltzen dituzten jantzi eszenikoen eta artistikoen gastuek. Euskal dantzatzat hartuko ditugu euskal kulturaren funtsezko parte diren Euskal Herriko zazpi lurraldeetako (Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa) dantza tradizionalak, belaunaldiz belaunaldi transmititzen direnak eta ospakizun erlijiosoak, jai herrikoiak, prozesioak, alardeak eta ekitaldi sozialak lagundu ohi dituztenak.

Jantzi eszeniko eta artistikotzat jotzen da jarduera osatzen duten pertsonen jantziaren parte dena, pertsona horiek inola ere garraiatu edo eutsi behar ez diotena. Inola ere ez dira diruz lagunduko honako hauek:

- Kaleko oinetakoak.
- Garraio-gastuak.
- Tresnak (ezpatak, makilak, banderak edo antzekoak).
- Atrezzoak, dekoratuak edo jantziekin erlazionatuta ez dauden osagarriak.
- Jantziak mantentzeko edo konpontzeko gastuak.

Diruz laguntzeko modukotzat joko dira 2025eko urtarrilaren 1etik 2026eko maiatzaren 31ra bitartean egindako gastuak, elkarteak antolatutako emanaldi eta jardueretan soilik erabilitako jantziatarakoak direnak.

Erakundearen jardueretako parte-hartzaile

1.- FINALIDAD Y OBJETO

El objetivo general de la presente convocatoria es la concesión de subvenciones a asociaciones culturales sin ánimo de lucro del municipio de Getxo que se dediquen al canto coral y a las danzas vascas, para la adquisición de vestuario artístico vinculado a su actividad, contribuyendo a la conservación, promoción y difusión del patrimonio inmaterial del municipio.

Para ello, serán objeto de subvención gastos de vestuario escénico y artístico que sea utilizado por las asociaciones durante sus representaciones de canto coral y danzas vascas. Se entiende como danzas vascas el conjunto de bailes tradicionales de los siete territorios de Euskal Herria (Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Navarra, Baja Navarra, Lapurdi y Zuberoa) que forman parte esencial de la cultura vasca, transmitiéndose de generación en generación, y que suelen acompañar tanto celebraciones religiosas como festividades populares, procesiones, alardes y actos sociales.

Se considera vestuario escénico y artístico aquel que forme parte del atuendo de las personas integrantes de la actividad sin que estas tengan que transportarlo o sujetarlo de forma alguna. En ningún caso se considerarán subvencionables los siguientes:

- Calzado de calle.
- Gastos de transporte.
- Utilería o herramientas (espadas, palos, banderas o similares).
- Atrezzo, decorados o complementos no vinculados al vestuario.
- Gastos de mantenimiento o reparación de vestuario.

Se considerarán subvencionables los gastos realizados entre el 1 de enero de 2025 y 31 de mayo de 2026, destinados a vestuario utilizado exclusivamente en actuaciones y actividades organizadas por la asociación.

Únicamente se subvencionará un atuendo por



bakoitzeko jantzi bakarra lagunduko da diruz.

Dirulaguntzaren bidez lortu ahal izango den gehieneko zenbatekoa 4.800 eurokoa izango da erakunde bakoitzeko.

persona participante en las actividades descritas de la entidad.

La cuantía máxima que se podrá obtener mediante subvención será de 4.800 euros por entidad.

2.- ERAKUNDE HARTZAILEAK

Helbide soziala edo kokapen iraunkorra Getxon duen edozein pertsona juridiko izan daiteke hemen deitutako dirulaguntzen subjektu, baldin eta irabazi-asmorik gabeko elkarte bada eta bere estatutu-helburuak berariaz lotuta badaude abesbatzen jarduerarekin eta euskal dantzekin.

2.- ENTIDADES DESTINATARIAS

Podrá ser sujeto de las subvenciones aquí convocadas, cualquier persona jurídica que, teniendo su domicilio social o establecimiento permanente en Getxo, tenga carácter de asociación sin ánimo de lucro y cuyos fines estatutarios se encuentren relacionados de forma explícita con la actividad coral y las danzas vascas.

Elkartea Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan eta Getxoko Udal-Erakundearen Erregistroan izena emanda egon beharko da.

La asociación deberá estar inscrita en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco, así como en el Registro Municipal de Entidades de Getxo.

3.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO ERA ETA EPEA

Eskabideak Getxo Kulturaren egoitza elektronikoren bidez (<https://sede.getxo-kultura.eus/>) (Deialdiak) edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren gainerako bitartekoen bidez aurkeztuko dira.

3.- FORMA Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Las solicitudes se presentarán a través de la sede electrónica de Getxo Kultura <https://sede.getxo-kultura.eus/> (Convocatorias) o de los restantes medios a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Informazioa eta eskabideen ereduak eskuragarri egongo dira Getxo Kulturaren web orrian ere: www.getxo-kultura.eus.

La información y los modelos de solicitud estarán también disponibles en la web de Getxo Kultura: www.getxo-kultura.eus.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita. BAOan argitaratzea Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalaren bitartez egingo da.

El plazo para la presentación de solicitudes será de un mes, que comenzará a computar al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia. Dicha publicación se realizará a través de la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

Eskaerak egoitzan dagoen eta **I. Eranskin** gisa agertzen den inprimakiaren bidez beteko dira.

Las solicitudes se cumplimentarán a través del formulario que se encuentra en la sede, y que aparece como **Anexo I**.

Eskabidearekin batera, atxikitako eranskinak behar bezala beteta aurkeztu beharko dira, bai eta 5. atalean adierazitako dokumentazio guztia

Junto con la instancia de solicitud habrán de presentarse, debidamente cumplimentados, los Anexos, así como el resto de la documentación



ere.

referida en el apartado 5º.

Eskabideak aipatutako epetik kanpo aurkezten badira, eskabideak atzera botako dira; kasu horretan, izapidetu gabe artxibatuta geratuko lirarteke.

La presentación de solicitudes fuera del plazo mencionado dará lugar a la desestimación de dichas solicitudes, archivándose las mismas sin más trámite.

5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

5.- DOCUMENTACIÓN A APORTAR JUNTO CON LA SOLICITUD

- I. Eranskina.
- II. Eranskina:
 - Memoria deskribatzailea: erositako jantzi edo jantzi-unitate bakoitzaren deskribapen zehatua eta bisuala, honako atal hauek dituena:
 - Izena, deskribapena eta erositako unitate-kopurua.
 - Elkartek 2024an eta 2025ean egindako ekitaldi publikoen kopurua.
 - Gizon eta emakumezkoentzat erositako jantzien kopurua.
 - Jantziak erostean, gizonen eta emakumeen arteko eta LGTBIQ+ pertsonen berdintasuna sustatzeko aurreikusitako neurrien deskribapena.
- III. Eranskina: jantziak erosi izanaren fakturak.
- IV. Eranskina: elkarteko ahalduak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, jarduketetan parte hartuko duten eta diruz lagundutako jantziak erabiliko dituzten elkarteko kideen kopuru zehatza ziurtatzen duena.

- Anexo I.
- Anexo II:
 - Memoria descriptiva: descripción detallada y visual de cada prenda o unidad de vestuario adquirida que contenga los siguientes apartados:
 - Nombre, descripción y número de unidades adquiridas.
 - Número de actuaciones públicas realizadas por la asociación durante los años 2024 y 2025.
 - Número de prendas adquiridas para hombres y para mujeres.
 - Descripción de las medidas previstas para promover la igualdad entre hombres y mujeres, y personas LGTBIQ+ en la adquisición de vestuario.
- Anexo III: facturas de adquisición del vestuario.
- Anexo IV: declaración responsable firmada por la persona apoderada dentro de la asociación que certifique el número exacto de integrantes de la asociación que participarán en las actuaciones y harán uso del vestuario subvencionado.

Lurralde Historikoko Foru-Ogasunarekiko zein Gizarte Segurantzarekiko, bai eta Getxoko Udalarekiko betebeharrak egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria ofizioz eskatuko da, interesdunak espresuki kontrakoa adierazten ez badu eta, kasu horretan, ziurtagiria aurkezten badu. Halaber, erakunde eskatzaileak behar bezala justifikatuta izan beharko ditu Getxo Kulturak 2025ean emandako dirulaguntza guztiak.

Se requerirá de oficio certificado de estar al corriente de pagos a la Hacienda Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, así como a la Seguridad Social y al Ayuntamiento de Getxo, salvo que el/la interesado/a manifieste su oposición expresa y, en ese caso, entregue el certificado. Asimismo, la entidad solicitante deberá haber justificado adecuadamente toda subvención que le haya sido concedida por Getxo Cultura en 2025.



Getxo Kulturak, kasu zehatz bakoitzaren arabera, eskatzaileari egoki deritzon dokumentazio osagarria eskatu ahal dio aurkeztutako proiektuaren balorazioa egiteko. Elkarrekin dokumentazio hori derrigorrez aurkeztu beharko du eskaera aurrera eramateko.

3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, eta 2016/679 (EB) Erregelamenduan ezarritakoa betez, erakunde eskatzaileei jakinarazten zaie utzitako datuak eta dokumentazioa deialdi honetako dirulaguntzak emateko prozeduran bakarrik erabiliko direla.

Getxo Kultura podrá, en atención a cada caso concreto, requerir al/la solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración de conjunto del proyecto presentado. La entidad tendrá la obligación de presentarla si desea que su solicitud sea tramitada.

A los efectos del cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y el Reglamento (UE) 2016/679, se advierte a las entidades solicitantes que los datos aportados como parte de la documentación relacionada serán utilizados exclusivamente en el procedimiento de concesión de subvención de esta convocatoria.

6.- ESKABIDEAK BAZTERTZEA

Ez dira kontuan hartuko epe mugatik kanpoko eskariak, ezta Getxoko Udaletik edo/eta bere Erakundeetatik aurretiaz jasotako dirulaguntzen azalpen-memoriarik edo/eta justifikazio-agiririk aurkeztu gabe duten erakundeek egindako eskabideak ere.

6.- EXCLUSIÓN DE SOLICITUDES

No se tendrán en cuenta aquellas solicitudes presentadas fuera de plazo ni las formuladas por una entidad que tenga pendiente la presentación de memoria explicativa y/o justificación documental de subvenciones recibidas del Ayuntamiento de Getxo y/o sus Organismos en ocasiones anteriores.

7.- ESKABIDE OSATUGABEAK EDO AKASTUNAK

Aurkeztu den eskabidea edo/eta eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatugabeak badira edo zuzen daitekeen akatsik badute, eskatzaileari dokumentazioa osatzeko edo zuzentzeko eskatuko zaio eta 10 lan eguneko epea utziko zaio, errekerimendua jakinarazi eta biharamunean hasiko dena. Akatsak zuzendu ezean edo dokumentazioa osatu ezean, eskabideari uko egiten diola ulertuko da.

7.- SOLICITUDES INCOMPLETAS O DEFECTUOSAS

En el caso de que la solicitud presentada o la documentación adjuntada sean incompletas o adolezcan de algún otro defecto subsanable, se requerirá al solicitante para que proceda a su subsanación en el plazo máximo de 10 días hábiles, a contar desde el siguiente a la notificación del requerimiento, indicándole que de no hacerlo así, se le tendrá por desistido de su solicitud.

8.- NORGEHIAGOKA

Deialdi honetako dirulaguntzak norgehiagoka-araubideari jarraituz esleituko dira, alegia, aurkeztutako eskabideak balioztatu egingo dira eta, ondoren, lehentasuna erabakiko da, horretarako deialdi honetako balorazio-irizpideei jarraituko zaielarik.

8.- CONCURRENCIA COMPETITIVA

Las subvenciones ahora convocadas se otorgarán mediante el régimen de concurrencia competitiva, a través de la evaluación de las solicitudes presentadas y posterior establecimiento de una prelación entre las mismas, de acuerdo con los criterios de valoración recogidos en la presente



Edonola ere, dirulaguntza ematea ebazpena ematen den unean kreditu egokia eta nahikoa egoteari baldintzatuta geratuko da.

convocatoria.

En todo caso, la concesión de las subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de concesión.

9.- BALORAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK

9.- CRITERIOS DE VALORACIÓN

Jarraian, oro har eta Udal Ordenantzarekin bat etorritik, diruz lagundu beharreko proiektuak hautatzerakoan baloratuko diren alderdiak zerrendatuko dira:

A continuación se enumeran los aspectos que, en términos generales, y de acuerdo con la Ordenanza Municipal, se valorarán a la hora de seleccionar los proyectos a subvencionar:

1) Elkarteak 2024an eta 2025ean egindako ekitaldi publikoen kopurua. **Gehienez 40 puntu.**

1) Número de actuaciones públicas realizadas por la asociación durante los años 2024 y 2025. **Máximo 40 puntos.**

- Jarduera gehien egin dituen erakundeak 40 puntu lortuko ditu, eta gainerakoek ezarritako gehienekoari dagokion portzentajezko puntuazioa jasoko dute.

- La entidad que más actuaciones haya realizado obtendrá 40 puntos, y el resto recibirá la puntuación porcentual relativa al máximo establecido.

2) Ekitatea gizonentzat eta emakumeentzat erositako jantzien kopuruan, eta gizonen eta emakumeen eta LGTBQ+ pertsonen arteko berdintasuna sustatzea. **Gehienez 20 puntu.**

2) Equidad en el número de prendas adquiridas para hombres y para mujeres y promoción de la igualdad entre hombres y mujeres, y personas del colectivo LGTBQ+. **Máximo 20 puntos.**

- Ekitatea badago gizonentzako eta emakumeentzako jantzien kopuruen artean (genero baten % 40 baino gutxiago edo % 60 baino gehiago): 10 puntu.

- Si existe equidad entre el número de prendas para hombres y mujeres (no menos del 40 % ni más del 60 % de un género): 10 puntos.

- Gizonentzako eta emakumeentzako jantzien kopuruaren artean ekitaterik ez badago (genero baten % 40 edo % 60 baino gehiago): 0 puntu.

- Si no existe equidad entre el número de prendas para hombres y mujeres (no menos del 40 % ni más del 60 % de un género): 0 puntos.

- Jantziak erostean, gizonen eta emakumeen eta LGTBQ+ kolektiboko pertsonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak badaude: 10 puntu.

- Si existen medidas para la promoción de la igualdad entre hombres y mujeres, y personas del colectivo LGTBQ+ en la adquisición de vestuario: 10 puntos.

- Jantziak erostean, gizonen eta emakumeen eta LGTBQ+ kolektiboko pertsonen arteko berdintasuna sustatzeko neurririk ez badago: 0 puntu.

- Si no existen medidas para la promoción de la igualdad entre hombres y mujeres, y personas del colectivo LGTBQ+ en la adquisición de vestuario: 0 puntos.

3) Adierazitako jantzia erabiliko duten jardueretan parte hartuko duten pertsonen kopurua. **Gehienez 40 puntu.**

3) Número de personas participantes en las actuaciones que vayan a utilizar el atuendo indicado. **Máximo 40 puntos.**

- Parte-hartzaile gehien aurkeztu dituen

- La entidad que más participantes haya



erakundeak 40 puntu lortuko ditu, eta gainerakoek ezarritako gehienekoari dagokion portzentajezko puntuazioa jasoko dute.

presentado obtendrá 40 puntos, y el resto recibirá la puntuación porcentual relativa al máximo establecido.

Irizpide horien balorazio zehatza erantsitako dokumentuetan emandako informazioaren arabera egingo da.

La valoración detallada de estos criterios se realizará de acuerdo con la información facilitada en los documentos anexos.

Dirulaguntza jaso ahal izateko, gutxienez 25 puntu lortu beharko dira.

Se deberá obtener una puntuación mínima de 25 puntos para poder recibir la subvención.

10.- IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA

10.- TRAMITACIÓN Y RESOLUCIÓN

Deialdi honetan jasotako laguntzak emateko organo instruktorea Getxo Kulturako administrazio-unitatea izango da.

El órgano instructor para la concesión de las ayudas recogidas en la presente convocatoria será la unidad administrativa de Getxo Kultura.

Ebazpena emateko eskumena Erakundeko presidentek izango du, aurreko paragrafoan aipaturiko organo instruktoreak proposatuta.

El órgano competente para resolver será la presidenta del Organismo, a propuesta del órgano instructor referido en el párrafo anterior.

Dirulaguntza emateko proposamena dirulaguntza eman duen organoari egingo dio, hau da, lehendakariari, maiatzaren 4ko 111/2022 Ebazpenaren bidez izendatutako kide anitzeko organoak.

La propuesta de concesión se formulará al órgano concedente de la subvención, es decir, la presidenta, por un órgano colegiado nombrado por resolución 111/2022 de 4 de mayo.

Ebazpena emateko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen denetik hasita. Epea amaitu ondoren, dirulaguntzaren eskabidea ezetsi egingo da, berariazko ebazpena eman ezean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazioa Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

El plazo máximo para dictar resolución será de cuatro meses, a contar desde el fin del plazo establecido para la presentación de solicitudes, transcurrido el cual se entenderá desestimada la petición de subvención si no recayera resolución expresa, según lo establecido en el artículo 25.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Ematen den ebazpenak administrazio-bidea agortuko du eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, administrazio-bidea agortu denaren jakinarazpena jasotzen denetik bi hilabeteko epean. Hala ere, nahi izanez gero eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, hilabeteko epean berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari berari.

La resolución que se dicte pondrá fin a la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de la recepción de la correspondiente notificación, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo. No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, cabrá interponer en el plazo de un mes, recurso de reposición ante el mismo órgano que dictó la resolución.



Deialdi honetan araututako laguntzak pertsona onuradunei emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko baldintza izango da, Getxoko udalak ematen dituen izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan horiek itzultzeko edo zehatzeko edozein prozedura izapidetzen ari bada oraindik, izapidetzeak amaituta egotea.

La concesión y, en su caso, el pago a las personas beneficiarias de las ayudas reguladas en la presente convocatoria quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por el Ayuntamiento de Getxo, se halle todavía en tramitación.

Dirulaguntza jaso ahal izateko Getxoko Udalarekiko zerga-betebeharrak eta betebeharrak ekonomikoak egunean izan beharko dira. Ofizioz egiaztatuko da.

Para poder recibir subvención será necesario estar al corriente de las obligaciones tributarias y económicas con el Ayuntamiento de Getxo. Se comprobará de oficio.

Dirulaguntzen ebazpena Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalen argitaratuko dira.

La concesión de las subvenciones se publicará en la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

11.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

11.- CUANTÍA DE LA SUBVENCIÓN Y FORMA DE PAGO

Deialdi honen xedea betetzeko, finantzaketa gehienez **35.000 €**-ko aurrekontu-kredituaren kontura egingo da, 003/3340/48100 aurrekontu-partidaren kontura hain zuzen.

A los efectos del cumplimiento del objeto de la presente convocatoria, la financiación se efectuará con cargo a un crédito presupuestario máximo de **35.000 €**, con cargo a la partida presupuestaria 003/3340/48100.

Balorazio-fasean lortutako puntuazioaren araberrako hurrenkera ezarriko da (handienetik txikienera). Baztertu egingo dira eskatutako gutxienerako puntuazioa lortu ez duten proposamenak.

Se establecerá una prelación según la puntuación (de mayor a menor) obtenida en la fase de valoración. Se excluirán las propuestas que no hayan alcanzado la puntuación mínima exigida.

Lehentasun-ordenari jarraituz, honela banatuko da kreditua:

Siguiendo el orden de la prelación, se repartirá el crédito de la siguiente forma:

- 1.000 eurorainoko gastuetarako dirulaguntza eskatuz gero, eskatutako gastuaren % 100 ordainduko da.
- 1.001 eta 3.000 € bitarteko gastua, % 90 estaliko da.
- 3.001 eta 6.000 € bitarteko gastua, % 80 estaliko da.

- En caso de solicitud de subvención para gastos hasta 1.000 euros, se cubrirá el 100 % del gasto solicitado.
- Entre 1.001 € y 3.000 € de gasto, se cubrirá el 90 %.
- Entre 3.001 € y 6.000 € de gasto, se cubrirá el 80 %.

Dirulaguntzen zenbatekoak:

Importes de las subvenciones:

Orain deitutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandako beste edozein dirulaguntzarekin, baina ezin izango da inola ere gainfinantzaketarik egon, hau da, beste erakunde batzuekin batera diruz

Las subvenciones ahora convocadas serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por otras instituciones, públicas o privadas, para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobrefinanciación, es decir, sin que el importe total subvencionado en concurrencia



lagundutako guztizko zenbatekoak ezin izango du gainditu jardueraren guztizko kostua.

con otras entidades pueda superar el coste total de la actividad.

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak Getxoko Udaleko beste sail batzuek edo helburu bera duten Getxo Kulturako beste deialdi batzuek finantzatzutako edo finantza ditzaketen jarduerekin.

Estas subvenciones no son compatibles con las actividades financiadas, o susceptibles de serlo, por otros departamentos del Ayuntamiento de Getxo u otras convocatorias de Getxo Kultura que compartan el mismo objeto.

Dirulaguntzak pilatzearen ondorioz gainfinantzaketa gertatzen bada, onuradunak Getxo Kulturak emandako kantitatea itzuli beharko du, horrek finantzatzutako zenbateko osoari dagokionez eman duen zenbatekoaren proportzioan.

Caso de producirse un supuesto de sobrefinanciación por concurrencia de subvenciones, el beneficiario tendrá la obligación de reintegro de la cuantía concedida por Getxo Kultura en proporción al importe aportado por éste en relación con el total financiado.

12.- ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

12.- OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD BENEFICIARIA

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak aurkeztutako proiektua aurrera eraman beharko du eta hala deialdi honetan adierazitako xedapenak nola Getxoko Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra adierazitako xedapenak bete beharko ditu.

La entidad perceptora de la subvención tendrá la obligación de llevar a cabo el proyecto presentado así como de cumplir con las disposiciones establecidas en la presente convocatoria, así como con lo preceptuado en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autónomos.

Nolanahi ere, emakidaren ebazpena egokituta, onuradunak haren edukia aldatzeko eskatu ahal izango du, eta baimendu ahal izango da, baldin eta besteen eskubideak kaltetzen ez badira. Eskaera jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da.

No obstante, una vez recaída la resolución de concesión, el beneficiario podrá solicitar la modificación de su contenido, que se podrá autorizar siempre que no dañe derechos de tercero. La solicitud deberá presentarse antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad.

Zehazki, erakunde eskatzaileari gogorarazten zaio, erakunde eskatzaileari, dirulaguntzaren onuradun izanez gero, deialdi honen bidez diruz lagundutako jantziak dituzten jarduera guztietan egiten diren sustapen-elementuetan eta karteletan, testuetan edo dokumentuetan Getxo Kulturaren eta Getxoko Udalaren laguntzaren aipamena sartzeko betebeharra izango duela. Testu edo dokumentu horiek EAEko bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dira, betiere kartelak jantzeari buruzko udal-araudia betez.

En concreto, se recuerda a la entidad solicitante la obligación que adquirirá, caso de resultar beneficiaria de subvención, de incorporar en los elementos de promoción y en los carteles, textos o documentos que se elaboren con ocasión de toda actividad con vestuario subvencionado mediante la presente convocatoria, los cuales deberán editarse en las dos lenguas oficiales de la C.A.V., la mención de la ayuda de Getxo Kultura y del Ayuntamiento de Getxo, cumpliendo en todo caso con la normativa municipal respecto a la colocación de carteles.

Era berean, laguntzaren onuradun izanez gero,

Asímismo, en caso de ser beneficiarios de la



jakinarazpen publiko bat egin beharko dute emandako dirulaguntzaren eta erositako jantzien berri ematen duten kanaletan edo hedabideetan.

ayuda, deberán hacer una comunicación pública en los canales o medios de los que dispongan en los que den a conocer la subvención otorgada y el vestuario adquirido.

13.- DIRULAGUNTZA ITZULTZEA

Jarraian adierazitako kasuak gertatuz gero, jasotako dirulaguntza Udalaren Diru-kutxara itzuliko da, dirulaguntza ordaintzen denetik beratu itzultzeko erabakia hartzen den egunera arte sortutako berandutzazko interesak barne:

- Emandako zenbatekoa beratu eskatu zen helburu zehatzera ez bideratzea.
- Dirulaguntza eskuratu izana, horretarako beharrezkoak diren baldintzak bete gabe.
- Deialdi honetan eta aipatutako Udal Ordenantzan adierazitakoa betez, hartutako betebeharrak urratzea, onuradunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik.
- Gainfinantzatzea, jasotako dirulaguntzaren zenbatekoaren eta jarduera egikaritzean sortu diren egiazko gastuen arteko aldea ikusita.
- Beste erakunde batzuek, publikoek edo pribatuek, emandako dirulaguntzak edo laguntzak pilatzeagatik gainfinantzaketa egotea. Kasu horretan, onuradunak Getxo Kulturak emandako kantitatea itzuli beharko du, horrek finantzatutako zenbateko osoari dagokionez eman duen zenbatekoaren proportzioan.
- Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, osorik edo zati batean, proportzionaltasunaren edo egitatearen printzipioari jarraituko zaio eta, horretarako, kasu bakoitzaren ezaugarriak hartuko dira kontuan.
- Dirulaguntza itzultzeko ebazpena dirulaguntza emateko ebazpena eman zuen organo berak eman beharko du.

Itzulketa-espedita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. tituluan ezarritako prozedura-arauetara egokituko da, eta 15 egun balioduneko epean entzunaldi-izapidea emango

13.- REINTEGRO DE LA SUBVENCIÓN

Procederá el reintegro a las Arcas Municipales de la ayuda recibida, con los intereses de demora correspondientes desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en la que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando se dé alguno de los supuestos siguientes:

- No destinar la cuantía concedida a la finalidad concreta para la que se solicitó.
- Haber obtenido la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.
- El incumplimiento, por razones imputables a la entidad beneficiaria, de las obligaciones asumidas en aplicación de la presente convocatoria y de la Ordenanza Municipal mencionada.
- La sobrefinanciación, a la vista del importe de la subvención recibida en relación con los gastos real y efectivamente devengados por la realización de la actividad.
- La sobrefinanciación por concurrencia con otras subvenciones o ayudas de otras instituciones, públicas o privadas, en cuyo caso la entidad beneficiaria tendrá la obligación de reintegro de la cuantía concedida por Getxo Kultura en proporción al importe aportado por éste en relación con el total financiado.
- Para la determinación de la cuantía a reintegrar, total o parcialmente, se atenderá en cualquier caso a los principios de proporcionalidad y equidad, para lo cual se tendrán en cuenta las circunstancias de cada caso concreto.
- La resolución por la que se exija el reintegro se dictará por el mismo órgano que concedió la subvención.

El expediente de reintegro se ajustará a las normas de procedimiento establecidas en el Título IV de la Ley 39/2015 de 1 de octubre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y en el mismo se dará trámite de



zaio interesdunari.

audiencia al interesado por el plazo de 15 días hábiles.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren III. eta IV. tituluetan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluan xedatutakoa beteko da .

También se atenderá a lo dispuesto en el título III y IV del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y título II de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

14.- ZEHAPEN-ARAU BIDEA

Zehapen eta arau-hausteen araubidea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Tituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoa izango da.

14.- RÉGIMEN SANCIONADOR

El régimen de infracciones y sanciones será el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la Ley 2/1998 de 20 de febrero de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco.



ESKAERA AURKEZTU DUENAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD			
Izen-abizenak Nombre y apellidos		NAN DNI	
Zein izaera duzu erakundean? ¿Con que carácter actúas para la entidad?		<input type="checkbox"/> Legezko ordezkaria Representante legal	<input type="checkbox"/> Hitezko mandataria Mandatario verbal
ELKARTE ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA ASOCIACIÓN SOLICITANTE			
Elkarte eskatzailea Asociación solicitante		IFK CIF	
Helbidea (jakinarazpenetarako) Dirección (a efectos de notificaciones)			
Udalerrria Municipio	Posta kodea Código postal	@	
		Faxa	
Legezko ordezkariaren izen-abizenak Nombre y apellidos del/de la representante legal			
DIRULAGUNTZA / SUBVENCIÓN			
Eskatzaileak 2025ean Getxoko Udaletik edo Getxo Kulturatik kontzeptu beragatik dirulaguntza jaso zuen La entidad solicitante recibió en 2025 subvención del Ayuntamiento de Getxo y/o Getxo Kultura por el mismo concepto			
Bai/Sí <input type="checkbox"/>		Ez/No <input type="checkbox"/>	
Eskatzaileak jarduera berarentzat beste dirulaguntza bat eskatu edo jaso du La entidad ha solicitado o recibido otra(s) ayudas para la misma actividad			
Bai/Sí <input type="checkbox"/>		Ez/No <input type="checkbox"/>	
Eskatu zaion erakunde publiko edo pribatuaren izena Nombre de la entidad pública o privada en la que se solicitó			
Eskatutako edo jasotako kopurua Cantidad solicitada o recibida			
BAZKIDEAK / SOCIOS/AS			
Bazkideen kopurua Número de socios/as		Getxon bizi diren bazkideen kopurua Número de socios/as que residen en Getxo	
Bazkideek kuota ordaintzen dute? ¿Los/las socios/as pagan cuotas?			
Bai/Sí <input type="checkbox"/>		Ez/No <input type="checkbox"/>	



DATUAK KONTSULTATU EDO EGIAZTATZEAREN KONTRAKOTASUNA
OPOSICIÓN PARA LA CONSULTA O VERIFICACIÓN DE DATOS

Getxo Kultura Tokiko Erakunde Autonomoak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden datu hauei buruz.

El Organismo Autónomo Local Getxo Kultura va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los siguientes datos que obren en poder de la Administración.

Egiaztapen horren **aurka bazaude, markatu X** batez eta adierazi **zergatik** egiten duzun kontra eta **aurkeztu dokumentazioa**.

Si usted **se opone** a dicha verificación **marque con una X** e indique el **motivo** por el que se opone y **deberá aportar la documentación**.

Bizkaiko Foru Aldundia (BFA)

- Zerga-betebeharrak egunean edukitzearen kontsulta.

Diputación Foral de Bizkaia (DFB)

- Consulta de estar al corriente en las obligaciones tributarias.

Gizarte-Segurantzako Diruzaintza Orokorra (GSDO)

- GSDOrekin ordainketan egunean egotearen kontsulta

Tesorería General de la Seguridad Social (TGSS)

- Consulta de estar al corriente de pago con la TGSS

Getxoko Udala

- Zerga-betebeharrak egunean edukitzearen kontsulta.
 Dirulaguntzak itzultzeko ordainketa-betebeharretan egunean egotearen kontsulta.

Ayuntamiento de Getxo

- Consulta de estar al corriente en las obligaciones tributarias.
 Consulta de estar al corriente en obligaciones de pago por reintegro de subvenciones.

KONTRAKOTASUNAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA OPOSICIÓN

Kontrakotasunaren kasuan, beharrezkoa da justifikatzea aurka egotearen arrazoiak (Datuen Babestari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua eta Datuen Babesteko 2016/679 Erregelamenduen 21. artikulua).

En caso de oposición, es necesario que justifique las razones de su oposición (art.18 de la Ley orgánica 3/2018 de Protección de Datos y garantía de los derechos digitales y art. 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos).

Getxo(n), _____

Sinadura/Firma

Zure datuak "DIRULAGUNTZAK" tratamenduan sartzen dira; horren arduraduna Getxo Kultura da eta helburua du erakunde honek onartutako dirulaguntzak kudeatzea, sariak eta bekak barne. Tratamenduen oinarri juridikoa interesdunaren adostasuna eta dirulaguntza bat esleitzea da. Datuak arduradunarekin zuzenean lotura duten erakundeek eman ahal izango zaizkie. Titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko eta zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko, baita bere datuen trataera mugatzeko edo ukatzeko ere, Udalaren posta helbidera edo datuak@getxo.eus (datuak babesteko ordezkaria) helbidera idatzizko jakinarazpen bat bidaliz, bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat sartuta, edo Udalaren goitza elektronikoa horretarako eskuragarri dagoen kudeaketa elektronikoa hasiz. Informazio gehiagorako: www.getxo.eus/datuak.

Sus datos se incorporan al tratamiento "SUBVENCIONES" del que es responsable Getxo Kultura y que tiene como finalidad gestionar las subvenciones que aprueba esta entidad, incluidas las becas y premios que otorga este organismo. La base jurídica del tratamiento es el consentimiento y el otorgamiento de una subvención y podrán ser cedidos a organizaciones directamente relacionadas con la persona responsable. Su titular tiene derecho de acceso, rectificación, supresión y portabilidad de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección postal del Ayuntamiento o a datuak@getxo.eus (delegada de protección de datos) incluyendo en ambos casos documento acreditativo de su identidad. También puede iniciar el trámite electrónico disponible al efecto en la sede electrónica de la Corporación. Para más información: www.getxo.eus/datos.



Eskatzaileak 2024 eta 2025 urteetan egindako IKUSKIZUN kopurua _____ da. Jarraian, horien zerrenda erantsi da, izenburuarekin eta datarekin.

El número de ACTUACIONES realizadas por la asociación durante los años 2024 y 2025 es de _____. A continuación, se adjunta la relación de los mismos, con el título y la fecha.

IZENBURUA TÍTULO	DATA FECHA
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	
16	
17	
18	
19	
20	
21	
22	
23	
24	
25	
26	
27	
28	



Elkarteak _____ janzki erosi ditu emakumezkoentzat.

El número de prendas adquiridas para mujeres por la asociación es de _____.

Elkarteak _____ janzki erosi ditu gizonezkoentzat.

El número de prendas adquiridas para hombres por la asociación es de _____.

Jantziak erostean, gizonen eta emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen arteko berdintasuna sustatzeko aurreikusitako neurrien deskribapena.

Descripción de las medidas previstas para promover la igualdad entre hombres y mujeres, y personas LGTBIQ+ en la adquisición de vestuario.



ATXIKITU BEHARREKO DOKUMENTUAK / DOCUMENTACIÓN A ADJUNTAR:

FAKTURAK FACTURAS	Jantziak erosi izanaren fakturak Facturas de adquisición del vestuario	PDF formatua Formatu PDF
-----------------------------	----------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------

Listado de facturas de adquisición de vestuario: títulos y descripciones.
Jantzien erosketa-fakturen zerrenda: izenburuak eta deskribapenak.



Elkarteko ahaldunak betetzeko eta sinatzeko idazkia /
Escrito a rellenar y firmar por el apoderado de la asociación

Nik, _____ [ahaldunaren izen osoa], _____ NANa duenak [zenbakia], _____ den aldetik [elkartearen barruan duen kargua, adibidez: lehendakaria/idazkaria/legezko ordezkaria] eta _____ ren ordezkari gisa [elkartearen izen osoa],

ZIURTATZEN DUT, ETA NIRE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DUT, jardueretan parte hartuko duten eta diruz lagundutako jantziak erabiliko dituzten elkarteko kideen kopuru zehatza honako hau dela: _____ pertsona [kopuru zehatza zenbakitan].

Adierazpen hori jantziak erosteko emandako dirulaguntza behar bezala aplikatu dela justifikatzeko egin da, eta informazio hori egiazkoa dela eta elkartearen benetako datuekin bat datorrela bermatzeko konpromisoa hartu da.

Eta horrela jasota gera dadin, idazki hau sinatzen dut _____ (e) n [lekua], _____ (e) ko [urtea] _____ ren [hilabetea] _____ (e) (a) n [hilabetea].

Sinadura

Elkartearen zigilua (hala badagokio)

Yo, _____ [nombre completo de la persona apoderada], con **DNI/NIE** _____ [número], en calidad de _____ [cargo dentro de la asociación, por ejemplo: presidente/a / secretario/a / representante legal] y en representación de _____ [nombre completo de la asociación],

CERTIFICO Y DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD que el número exacto de integrantes de la asociación que **participarán en las actuaciones y harán uso del vestuario subvencionado** asciende a un total de _____ [número exacto en cifras] personas.

Esta declaración se emite a los efectos de justificar la correcta aplicación de la subvención concedida para la adquisición de vestuario y con el compromiso de que dicha información es veraz y se corresponde con los datos reales de la asociación.

Y para que así conste, firmo la presente en _____ [lugar], a _____ [día] de _____ [mes] de _____ [año].

Firma

Sello de la asociación (si procede)

